

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak lehiaketara atera du euskara-gaztelania hizkuntza bikoteari dagozkion itzulpen zerbitzuen kontratazioa

Aurrekontua, lau urterako, 860.000 eurokoa da guztira, eta proposamenak aurkezteko epea irailaren 20an amaitzen da

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 22

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoren bidez, lehiaketara atera du, hurrengo lau urteetarako, erakunde autonomo horrek igorritako gaztelaniatik euskarara zein euskaratik gaztelaniara itzultzeko zerbitzuen kontratazioa. Zenbatekoak, guztira, 860.000 euro egiten du (BEZa barne). Zehazki, urte amaiera arte 54.000 euro erabiliko dira, eta urteko zenbatekoa 215.000 eurokoa izanen da.

Enpresek irailaren 20ra arte aurkez ditzakete proposamenak.

Esparru-akordioaren baldintza agiriaren arabera, zeina [Nafarroako Kontratazioaren Atarian](#) kontsultatu baitaiteke, hautapen prozesuan parte hartzen ahal dute jardute-gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute, interes gatazkan ez badaude eta eskatutako kontratu-prestazioa exekutatzeko behar adinako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala dutela frogatzen badute. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Era berean, batera parte hartzen duten aldi baterako enpresa-elkartek edo pertsonak lizitatzen ahalko dute, horrela ezartzen baita Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean.

Proposamenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoan aurkeztu beharko dira, eta, bestela, Euskarabideko Erregistroan (Yanguas y Miranda kalea 27, 1.a - 31003 Iruña) edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste edozein erregistrotan.

Proposamena postaz aurkeztea erabakitzen bada, posta ziurtatuaren bidez bidali beharko da Euskarabideko Erregistrora (Yanguas y Miranda kalea, 27, 1.a - 31003 Iruña), adierazita zer lehiaketari dagokion, eta lizitatzailleak egunean berean jakinaraziko du eskaintza igorri duela, mezu elektronikoa bidaliz euskarabidea@navarra.es helbidera, eta horri erantsiko dio posta